



**Arartekoaren 2021R-2088-20 Ebazpena, 2021eko urriaren 13koa. Horren bitartez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio baten azkentzea berrikus dezala. Izan ere, ezin da aldi baterako mugatu, barne-tresna hutsen bidez, indarreko araudian ezarritako adingabeak ardurapean dituen bizikidetz-unitate bat berezitzat jotzea, eta azpimarratu egiten du interpretazio horrek kultura gutxitu batzuegan eta egoera ahulean dauden familiengan dituen ondorioei buruz hausnartzeko beharra.**

### Aurrekariak

1.- Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, Lanbidek titular zen diru-sarrerak bermatzeko errenta eten ziolako. 2020ko urriaren 24an eman zen ebazpenean adierazi zen, enplegurako erakunde autonomoak prestazioa azkentzea erabaki zuela, honako arrazoi hau oinarri hartuta:

*“147/2010 Dekretuaren 8.2 artikuluan ezarritakoaren arabera: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuraduna izatea, beste DSBE espediente baten bizikidetz-unitate bereko kidea delako .*

*Bizikidetz-unitatean diru-sarrerak bermatzeko errenta onartuta duen kide bat izatea.”*

Horri dagokionez, bere kexa-idazkian kexagileak adierazi zuen bizikidetz-unitate bat osatzen zuela. Hura eratzen zuten bere emazteak, bere haurrak (orain 4 urte ditu) eta berak. Azaldu zuen, haurra jaio bezain laster, zehazki, 2017ko abuztuaren 26an, bere emaztearekin eta haurrarekin bere amaren etxera bizitzera joan zela. Une horretan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera egin zuten, eta urte horretako abenduaren 20ko ebazpen bidez aitortu zitzaaien, ulertzen baitzen adingabe bat ardurapean izateagatik bizikidetz-unitate berezia eratzen zutela.

Egun batzuk geroago, interesdunek etxebizitza bat alokatu zuten eta hara bizitzera joatea erabaki zuten. Une horretan ohiko bizikidetz-unitate bat eratzera igaro ziren eta gainera, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria aitortu zitzaaien.

Bi urte eta erdi egon ziren kexagilea eta bere emaztea modu independentean bizitzen, zehazki, 2018ko urtarrilaren 8tik 2020ko abuztuaren 28ra arte, eta arazo ekonomiko larriak jasan zituzten. Lana galdu zuten COVID-19ak eta kutsatzeak





eusteko neurriek, hurrenez hurren, eragindako osasun krisiaren eta atzeraldi ekonomikoaren ondorioz.

Kexan adierazitakoaren arabera, interesduna Gasteizko Zumakerako Lanbideren bulegora joan zen eta han aholkatu zioten familia etxebizitzara bueltatu zitekeela, eta horrela, familia-etxean adingabeak ardurapean dituzten titularren kasuan araudiak jasotzen duen bizikidetzaren bereziaren bi urteak agortu. Hori dela eta, kexagilearen amarekin bizitzera bueltatu ziren.

Lanbidek, 2020ko irailaren 23ko ebazpenaren bidez, kexagilearen etxebizitzarako prestazio osagarria eten zuen, urte horretako abuztutik ez baitzuen etxebizitzaren gasturik egiaztatu. Ebazpen horretan, 2020ko irailaren 23an diru-sarrerak bermatzeko errentaren aitortpena mantendu zen.

Nolanahi ere, aste batzuk igaro eta gero, Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zuen, bere amaren bizikidetzaren unitatera batu behar zirelako, ez baitzituzten betetzen, bere ustez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan aurreikusitako salbuespenaren baldintzak.

Ebazpen horretan, enplegu erakunde autonomoak bidegabe jasotako prestazioen sorrera aurreratu zuen. Zehazki Lanbideren ustez, bizikidetzaren unitateak, bi hilabete horietan zehar, ez zituen betetzen jaso zuen diru-sarrerak bermatzeko errentak jasotzeko baldintzak. Guztira, 1.643,42 euro ziren, hau da, 2020ko abuztuko eta iraileko zenbatekoengatik jasotakoa.

Ebazpen horrekin ados ez zegoenez, kexagileak 2020ko irailaren 9an zegokion berraztertze errekurtsoa jarri zuen, eta hori erantzuteke dago kexa-espedita hau ebatzi den unean.

Momentu honetan, interesduna den bizikidetzaren unitatea diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren espedita berri baten titularra da, izan ere, alokatutako etxebizitza batean bizi dira, modu independentean. Nolanahi ere, Lanbidek goian aipatutako itzultzeko beharra ebatzi du; horren ondorioz, diru-sarrerak bermatzeko errentagatik jasotzen duen hilabeteko zenbatekoan kopuru bat kenduko zaio.

**2.-** Kexa behar bezala izapidetzeko, Arartekoak informazio-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari. Horrela, aurretiazko gogoeta batzuk azalerratu zituen, eta horiek errepikatzea saihesteko, ondoren aipatuko dira.





Hain zuzen, honako kontu hauei buruzko azalpenak eskatu zitzaizkion Lanbideri:

- a) Xehetasun gehiago kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzeko arrazoiei buruz.
- b) Zure iritzia erakunde honek bizikidetza-unitate berezien denbora-mugei buruz egindako gogoetei buruz eta ea kontuan hartu den adingabeen interes gorena.
- c) Zer egoeratan dagoen kexagileak aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoaren izapidetzea, bai eta egindako azkeneko eskaera ere.
- d) Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

**3.-** Lankidetzaz-erantzute aldera, honako hau adierazi zuen Lanbideko zuzendari nagusiak:

“Lanbideko zuzendari nagusiaren 2017/12/20ko ebazpenaren bidez, 2017/08/26tik aurrerako ondorioekin, DSBE prestazioa eman zitzaion eskatzaileari, bizikidetza-unitate berezi izateagatik, seme-alabaren bat daukalako bere kargu, DSBEari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2.d artikulua azken paragrafoarekin bat etorritik. Une hartan, gurasoekin eta DSBEri dagokionez bizikidetza-unitate berezia osatzen zuten beste senide batzuekin bizi zen.

2018/02/02an, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eskatu zuen, beste leku batera joan zelako bizitzera, (...) (errola-data: 2020/01/08)<sup>1</sup>.

Lanbideko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 20ko ebazpenaren bidez, EPOa eman zitzaion, bizikidetza-unitate bat eratu zuelako, lehen aipatutako 147/2010 Dekretuaren 5.2.b artikulua arabera.

(...) eta familia azken etxebizitza horretan errolatuta egon ziren 2020/07/29ra arte.

---

<sup>1</sup> Ulertzen dugu akats bat izan dela eta txostena 2018ko urtarrilaren 8az ari dela, izan ere, data horretan errolatuta zuten bizikidetza-unitateak alokairuko etxebizitzan eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen hasi ziren, ohiko bizikidetza-unitate gisa.



2020/08/28an, bizilekua aldatu zuela jakinarazi zuen (berriz ere (...)) helbidera joan zen; lehenago ere han bizi izan zen, gurasoekin batera, bizikidetzta-unitate berezian, seme-alabaren ardurapean zuelako).

2020/REV/084369 berrikuspenaren bidez, prestazioa azkendu zion urriaren 24ko ebazpena jakinarazi zitzaion; izan ere, 147/2010 Dekretuaren 5.2.d artikulua azken paragrafoaren arabera, "Bizileku duen bizikidetzta-unitatetik bereizitako bizikidetzta-unitatearen izaerari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta salbuespen gisa beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da".

Adierazi behar da 5.2.d artikulua azken paragrafoan adierazten den denbora, hain zuzen, "adingaberen bat izatea ardurapean" egoera eragiten duen egitatea gertatzean hasten dela kontatzen, eta denboraren zenbaketa ez dela eteten (12 hilabete horiek, beste 12 hilabetez ere luza daitezkeenak), nahiz eta bizikidetzta-unitatea aldatu bizilekua aldatzean (...) eta bizikidetzta-unitatea berria eratu (5.1.b artikuluan jasotakoetako bat), eta, hargatik, bere garaian eskatutako Etxebizitzarako Prestazio Osagarria aitortu izan.

Beraz, errolda aldatu eta berriz ere amaren etxean bizitzen hasi direnez, ez da bidezkoa seme-alabaren bat bere kargura duelako bizikidetzta-unitate bereziaren ondoriozko beste DSBE bat ematerik."

Beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1.- Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zuen, oinarri hartuta bera, bere emaztea eta bere haurrak eratzen zuten bizikidetzta-unitatea ez zela independentea etxean hartu zituen bizikidetzta-unitatearekiko. Enplegu erakunde autonomoak adierazi du Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 8.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarra ematen dela. Arau horren arabera: "Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak izango dira, titularraren bizikidetzta-unitate bera osatzen duten pertsonak". Horrela, Lanbideren ustez, etxebizitzan elkarrekin bizi diren pertsona guztiek, haien artean





familia harremanak badituzte, diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako bizikidetzaren unitate bakarra eratu behar dute.

Lanbideko zuzendari nagusiak erakunde honi bidalitako txostenean gai hau zehatzago garatzen da eta adierazten da aurretiaz adingabeak ardurapean dituen bizikidetzaren unitate independentea eratzearen baldintza bereziaz gozatzeagatik, eta baita egoera horietan araudiak aurreikusitako hogeita lau hilabeteak igarotzeagatik, kexagileak eta bere familiak ezin diotela eutsi diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan aurreikusitako aukerari.

**2.-** Diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen bizikidetzaren unitate independentea izatera aitortzen die, familia-harremanen bat duten titularren etxebizitza berean bizi badira ere.

Horrela, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikulua honako hau ezartzen du:

“1. Lege honen ondorioetarako, honako pertsona edo talde hauek izango dira bizikidetzaren unitateak:

(...)

b) Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez, edo familia-harrerako harreman iraunkor baten edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman baten bidez.

(...)

2. Salbuespen gisa, are artikulua honetako 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetakoren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetzaren unitate hartuko dira honako hauek:

(...)

c) Beren kontura adingabeak dituzten pertsonak

Eusko Jaurlaritzak, gizartearen bilakaerari eta, bereziki, familia-egiturako ereduaren bilakaerari erantzunez, beste salbuespen batzuk ere zehaztu ahalko ditu, aldi baterako harrerako formulak barne direla.





3. 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, etxebizitzan edo bizitokian bizi diren gainerako pertsonak, are 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetako baten bidez aipatutako pertsonekin harremana dutenak, beste bizikidetzak-unitate bateko kideztat joko dira.<sup>2</sup>

Legeak, beraz, aurreikusi egiten du familia batek adingabeak ardurapean dituen banakako bizikidetzak-unitate bat osatzen duela, aurreikuspen horri inolako denboramugarik ezarri gabe.

Hori ez da horrela araudiaren garapenean, zehazki, 147/2010 Dekretuaren aipatutako 5.2 artikuluan, bizikidetzak-unitate ereduak zehaztean, honako hau ezartzen da:

*“2.– Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako loturaren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetzak-unitatetzat hartuko dira honako hauek:*

*(...) c) Ekonomikoki beren kargura % 45etik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten edota II. graduko 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten adingabeak edo pertsona helduak dituzten pertsonak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 legean aurreikusitakoaren arabera.*

*(...) Aurreko paragrafoan aipatutako c) eta d) kasuetan, bizi deneko bizikidetzak-unitatetik bereizitako bizikidetzak-unitate izaerari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.”<sup>3</sup>*

Erakunde honek gai hori kontuan hartu zuen 2017ko Diagnostiko-txostenean, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen<sup>4</sup>. Garai horretan aipatu zen abenduaren 23ko 18/2008 Legearen garapen arautzaileak, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluetatik, bizikidetzak-unitate berezien iraupena mugatu zuela, izan ere, nahiz eta Legeak oraindik ere denbora mugarik ez ezarri, Dekretuak, ordea, hamabi hilabeteko gehieneko epera mugatzen zuen egoera hori, salbuespen gisa beste hamabi hilabete luzatzeko aukerarekin.

Aurreko arau garapenak —Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 4. artikulua, 2 eta 3. apartatuak— ez zuen

<sup>2</sup> Arartekoak azpimarratua

<sup>3</sup> Arartekoak azpimarratua

<sup>4</sup> Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4199\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf)



salbuespenezko egoera horietarako mugarik ezarri denborari dagokionez, ardurapeko adingabea adinez nagusia (hau da, hamazortzi urte) izatearen ondoriozko muga izan ezik.

Hori dela eta, aipatutako Diagnostiko-txostenean, Arartekoak epe hori luzatzeko aukerari buruz hausnartu behar zela adierazi zien, gutxienez, salbuespenezko kasu batzuetan. Gomendio hori 18/2008 Legearen arau aurreikuspenarekin bat etorriko litzateke, 9. artikuluan honako hau ontzat jotzen baita: “Eusko Jaurlaritzak, gizartearen bilakaerari eta, bereziki, familia-egiturako ereduen bilakaerari erantzunez, beste salbuespen batzuk ere zehaztu ahalko ditu, aldi baterako harrerako formulak barne direla.”

Horrela, euskal gizarteratze-sistemak dituen helburuekin bat datorren jarduketa bat, erakunde honen iritziz, denbora-muga horren salbuespen batzuk aurreikustea litzateke; aurreikusitako kasuetan, Lanbidek, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta, familia-unitateetan adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzak unitateen harrera erraztu ahal izango luke, gutxienez, koordinazio instituzional horrek bizikidetzak unitate arrunt bat eratzeko eta gizarteratze- eta ekonomia-prozesuarekin aurrera jarraitzeko aukera eman ahal dien arte.

**3.-** Araudi-garapenean sartutako mugaketaz gain, Lanbideren Irizpide agiriaren dokumentuak, 2017ko maiatzekoak<sup>5</sup>, mugaketa berri bat gehitu zuen. Horren arabera adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzak unitate bereziak eratzen dituzten pertsonak ezin diote salbuespen horri heldu beste une batean salbuespen horri heldu bazioten, nahiz eta goian aipatutako araudian aurreikusitako 24 hilabeteko epea ez agortu.

Zehazki, adingabeak ardurapean dituen bizikidetzak unitatea zehazteari buruzko 1.5 puntuko dokumentuak honako hau dio:

*“147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluen arabera, BUtzat hartuko dira honako ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonak edo pertsona multzoak: ‘Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatzi-zatian aurreikusitako loturaren bat (ezkontzaren edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor bat, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna, bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasuna...) daukaten pertsonen etxebizitzan bizi direnean ere, bizikidetzak unitate hartuko dira (...)’.*

<sup>5</sup> Hemen eskuragarri: <https://www.lanbide.euskadi.eus/dba/-/informazioa/erizpideak/>



Horrenbestez, beren ardurapean adingabeak dituzten bizikidetzta-unitate guztiek adingabeen BU gisa kobratzeko eskubidea izango dute gainerako baldintzak betetzen badituzte, betiere bi urteko mugarekin eta 147/2010 Dekretua indarrean hasi zenez geroztik ez badira egon adingabeen BU gisa.<sup>6</sup>

Bestalde, erakunde honek jakin du Lanbidek JAR-DBE-023 Jarraibidea onartu duela, 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikulua adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzta-unitateentzat ezartzen duen gehieneko denbora zenbatzeko datari buruzkoa. Instrukzioak berak ezartzen duenez, instrukzio hori 2020ko abenduaren 14an sartu zen indarrean.

Horren xedea da "berriz aztertzea adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzta-unitateetarako 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritako epearen zenbaketa hasten den egunean ematen den interpretazioa eta aplikazioa". Jarraibidean bertan adierazitakoaren arabera, administrazioarekiko auzien epaitegiek emandako zenbait eparen ondorioz idatzi da jarraibidea, zeinak ez datozen bat Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak artikulua horretan ezarritako epearen zenbaketa hasten den egunari buruz egindako interpretazioarekin eta aplikazioarekin. Instrukzioak ez ditu aipatzen hura eratzeko arrazoitzat jotako epaiak, beraz, ezezaguna da horien edukia.

Egungo jarraibideak are gehiago mugatzen du ardurapean adingabeak dituzten pertsonen bizikidetzta-unitate bereziaren iraupena, izan ere, horren hogeita lau hilabeteko epearen hasiera adingabea jaiotzean edota hura adoptatzen den unean hasten da. Azken mugaketa horrek zerikusia du gai honekin, izan ere, Lanbidek argudiatu du interesdunaren prestazioa azkentzeko erabakia hartu duela 147/2010 Dekretuan aurreikusitako 24 hilabeteko epea eteten ez delako, nahiz eta titularra den bizikidetzta-unitatea bizilekuz aldatu eta denbora-tarte jakin batean zehar ohiko bizikidetzta-unitate bat eratu.

**4.-** Bai 2017ko Lanbideren Irizpideen agiriaren edukiari dagokionez, baita idatzi berri den jarraibideari dagokionez ere, erakunde honek azpimarratu nahi du administrazioaren barne-dokumentuan jasotako araudiaren interpretazio baten aurrean gaudela.

Horri dagokionez, hau da, administrazioen antzeko zirkular eta dokumentuen barne-izaera eta izaera ez-arauemaile hutsari dagokionez, merezi du orain dela gutxi

---

<sup>6</sup> Guk azpimarratua





Auzitegi Gorenak 2021eko urtarrilaren 26an igorri zuen 215/2021 Epaiaren<sup>7</sup> edukia aipatzea. Bertan, Andaluziako Juntako Justizia eta Barne Saileko Barne, Larrialdi eta Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusiak bidalitako zirkular baten arau-balioari dagokionez, honako hau azaltzen da:

“Se trata, por tanto, de un contenido propio de una circular como es el de fijar unos criterios o pautas interpretativas, aclarando o ilustrando a los funcionarios sobre la interpretación del Reglamento efectuada por el superior jerárquico, a fin de unificar los criterios de su aplicación por los órganos y unidades que de él dependen y conseguir una interpretación y aplicación homogénea de la norma. Ofrece, por tanto, una interpretación para exclusivo uso interno, pues sólo los órganos dependientes de la Dirección General que la emite son sus destinatarios, sin que tenga incidencia ni vinculación alguna para los terceros administrados que en absoluto están sometidos a esta interpretación efectuada por la Dirección General y que, si la consideran desacertada, pueden expresar tal disconformidad al impugnar los actos de aplicación del reglamento que la asuman.<sup>8</sup>”

Azalpenaren argitasunagatik, nahitaez aipatu behar da 2020ko ekainaren 11ko Autoak<sup>9</sup>, Auzitegi Gorenarenak honako hau adierazi zuela jarraibideen eta zirkularren izaera juridikoari buruz:

- “... con independencia del nomen iuris que puedan adoptar tales resoluciones, las meras instrucciones carecen de naturaleza reglamentaria, al tratarse de una manifestación de la potestad autoorganizativa de la Administración pública, consistente en la capacidad de dirigir la actividad interna, mediante órdenes o pautas de funcionamiento de los órganos superiores a los inferiores que dependan jerárquicamente entre sí. De este modo, al no innovar ni formar parte del ordenamiento jurídico, en el que se integra, la instrucción no trasciende a los ciudadanos, al quedar reservada al ámbito interno de la propia Administración pública (efectos ad intram), aun cuando tengan la vocación de regir en las relaciones de los respectivos órganos administrativos con los ciudadanos dentro del ámbito establecido por la norma legal o reglamentaria que regule una determinada actividad prestacional o de relación con ellos.”

---

<sup>7</sup> [ECLI:ES:TS:2021:215].

<sup>8</sup> Guk azpimarratua.

<sup>9</sup> [ECLI:ES:TS:2020:4421A]





Ildo beretik, Auzitegi Gorenaren 2006ko ekainaren 21eko<sup>10</sup> Epaia honako hau ezarri zuen:

- “El carácter informativo o no que haya de atribuirse a una determinada decisión de un órgano administrativo no depende solo de la clase de materia sobre la que verse. Lo verdaderamente decisivo es el alcance y significación que su autor otorgue a dicha decisión.

Azken horrek esan nahi du, erabakia hartzen duten bakarrak administrazio-organoaren menpekoak direnean, eta horregatik mendeko horien etorkizuneko jardunerako jarraibideak azaleratzen direnean, onartu beharko dela hori ez dela herritarrentzat kanpo-eraginkortasuna duen arau-egintza bat, zerbitzu-jarraibide edo -agindu horietako bat baizik (...).”<sup>11</sup>

*Sensu contrario*, prestazio bat eskuratzeko eta azkentzeko betekizun espezifikoak jarraibide baten bidez zehazteak, ez du barne-bokazio eta bere burua antolatzeko bokazio hutsa; administrazio-antolamendutik kanpoko hirugarrenak lotzen ditu. Eta, gainera, ex novo arautzen ditu garrantzi bereziko gaiak (esan liteke gai horiek erregelamendu bat behar dutela horiek jasoko dituen tresna arautzaile gisa, eta ez jarraibide huts batek).

Laburbilduz, AGaren 2021eko apirilaren 29ko epai<sup>12</sup> berriak dioen bezala, erabakigarria ez da *nomen iuris* delakoa (hau da, barneko jarraibide edo zirkular batera jo izana), bazik eta haren edukia.

Adierazpen judizial horiekin bat etorriz, defentsa-erakunde honek uste du barneko autoantolaketa eta informazio gaietara bideratutako barne-erabilerarako dokumentua, babesten duen beste arau oinarririk ez badu, ezin dela diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea edo azkentzea dakarren araudia edukiz hornitzeko tresna gisa erabili. Dokumentu horrek kudeatzeko eta irizpideak bateratzeko erabilera eskusiboa izan behar du administrazio beraren barruan, baina ezin du betebeharrak berrien edo azkentzeko arrazoiak iturri izan, eta ezin ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea aitortzeko edo mantentzeko bideak hain zorrotz mugatu. Gogoratu behar da 147/2010 Dekretuak, 18/2008 Legearen 9. artikulua garatzean,

<sup>10</sup> [ECLI:ES:TS:2006:4198].

<sup>11</sup> Auzitegi Gorenak jarrera hori bera defendatu du honako erabaki judizial hauetan. Ikus, besteak beste, honako epai hauek: 2006ko abenduaren 12ko Epaia [ECLI:ES:TS:2006:8107]. 2007ko otsailaren 7ko Epaia [ECLI:ES:TS:2007:1497]. 2013ko ekainaren 18ko Epaia [ECLI:ES:TS:2013:3388]. 2021eko urtarrilaren 26ko Epaia [ECLI:ES:TS:2021:215].

<sup>12</sup> [ECLI:ES:TS:2021:1664]





bizikidetza-unitate bereziaren iraupenari dagokionez, soilik denbora-muga ezartzen duela; ez du hasiera-datarik jasotzen.

Ebazpen honetan aipatu diren barne-dokumentuen edukiaren azterketan, argi dago bizikidetza-unitate berezien kasuak definitzeko eta mugatzeko helburua dutela. Izan ere, edukia ez dator bat 18/2008 Legean aurreikusitako xedapenekin, legeak ez baitu familia-etxean jasotako bizikidetza-unitateen iraupena mugatzen.

**5.-** Beste alde batetik, erakunde honek uste du diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalako eskubide subjektibo bati Lanbidek ezaugarri horietako muga bat ezartzea baloratu beharko lukeela, gure komunitateko herritarren etxebizitza beharraren egungo egoerari behar bezalako erantzunik ematen ez duen neurrian.

lido horretan, enplegu-erakunde autonomoak ez luke alde batera utzi behar talde batzuek alokatzera (eta are gehiago erostera) bideratutako etxebizitzaren merkatu librerara sartzeko zailtasun bereziak dituztela. Horien artean aipatu behar dira prestazio sozialak jasotzen dituzten pertsonak. Gogoeta hau dagoeneko 2008an egin zen, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen zioen azalpenean Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru sozioekonomikoaren funtsezko ezaugarritzat honako hau barne hartu zenean: *"etxebizitzaren prezioak oso igoera handia izan du, bai jabetzakoena bai alokairukoena, eta, horren ondorioz, etxebizitza bihurtu da euskal familien arazo nagusietako bat."*

Alegatu da gainera, adingabeei eragiten dienez aplikatu behar dela Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikulua. Lege Organiko hori Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren idazketan eman zen.

"1. Todo menor tiene derecho a que su interés superior sea valorado y considerado como primordial en todas las acciones y decisiones que le conciernen, tanto en el ámbito público como privado. En la aplicación de la presente ley y demás normas que le afecten, así como en las medidas concernientes a los menores que adopten las instituciones, públicas o privadas, los Tribunales, o los órganos legislativos primará el interés superior de los mismos sobre cualquier otro interés legítimo que pudiera concurrir".

**6.-** Azkenik, Arartekoak azpimarratu behar du kexagileak aukerazko berraztertze errekurtso bat aurkeztu zuela 2020ko irailaren 9an. Errekurtso hori, Arartekoaren





ebazpen hau igorritako egunean, ez da ebatzi, Prozedura Administratibo Komunaren Legearen 124. artikuluan ezarritako aurreikuspena gorabehera.

lido horretan, egiaztatu ahal izan da berraztertze errekurtsoa atxikitzen zaien kexa-espeditenteen izapideetan, egun, errekurtsoak ebazteko epeek ez dutela azken urteetako hoberako joera jarraitu. Hori dela eta, uste da beharrezkoa dela ebazteko epea murriztea eta administrazio-prozedurari buruzko araudi orokorrean aurreikusitakora egokitzea.

7.- Ondorioz, Arartekoak azpimarratu behar du indarrean dagoen 18/2008 Legeak berme gehiago eskaintzen dituela bizikidetzaren berezi horiek ezartzeari dagokienez, horien ondorengo garapenari baino. Legean ez da mugatzen bizikidetzaren bereziaren zenbaketa-data. Aurreko araudiak (198/1999 Dekretua) bizikidetzaren berezia luzatzeko aukera ematen zuen adingabeak 18 urte bete arte. Egungo legea garatu zuen dekretuak (147/2010 Dekretuak) lege horren iraupena mugatu zuen; irizpideen agiriak zein duela gutxi jarraibideak are gehiago kotatu dute, hasiera-data adierazi baitute, eta horrek eragin du seme-alabak kargura izateagatik bizikidetzaren berezi izateko kasuak oso zehatzak izan behar izatea.

Bizikidetzaren berezi bat zenbatzeko hasiera-data barne-instrukzio baten bidez zehazteak hirugarren pertsonak lotzen ditu, eta ez du barne-bokazio hutsa, ezta autoantolaketa-bokazio hutsa ere; aitzitik, eskubide bat eskuratzeko baldintzak arautzea du helburu. Instrukzio hau ez da egin onartzeko legezko prozedura baten arabera, ez da dagokion aldizkarian argitaratu, eta ezin da aurkaratu. Beraz, ez du hirugarrenentzako indar loteslerik izan behar, Espainiako Konstituzioaren 9.3 eta 103.1 artikuluek aplikatzean edota Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.a artikulua aplikatzean. Horregatik, Arartekoaren iritziz, gai hori tresna arauemaile egokiaren bidez arautu beharko litzateke, ez baita soilik aplikatu beharreko araudiaren interpretazio bat, hura berriro egin behar baita.

Gainera, Arartekoak azpimarratu du 2017. urteko Diagnostiko-txosten horretan Lanbideri emandako gomendioa, hau da, gogoeta egin behar dela bizikidetzaren bereziaren epea luzatu ahal izateko aukerari buruz, salbuespeneko kasu batzuetan behintzat. Hain zuzen ere, erakunde horren ustez, erregelamendu bidezko garapenetik eratorritako denbora-mugak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak zituzten gutxiengo kultural batzuei egiten zien kalte. Hori dela eta,





ohikoa zen familia-harremanak dituzten hainbat bizikidetz-unitate etxebizitza berean bizi zena.

Horregatik, Arartekoak egoera horri buruz gogoetatzeko beharra azpimarratu du. Izan ere, jaiotza-data edota adoptatzeko eguna datu argia eta objektiboa bada ere, ez ditu barne hartzen gizarte-bazterkeria egoeran dauden familien kasu ezberdinak eta alde batera uzten du familia-kopuru handia. Familia horiek ez dute etxebizitza propiorik eta horrek eragindako gabezia egoerei aurre egin behar diete.

Arartekoaren ustez, indarreko araudia aplikatzerakoan, kontuan hartu behar dira talde jakinek pairatzen dituzten etxebizitza bat izateko zailtasunak. Gizarte-bazterkeriako eta egoitza-bazterkeriako egoeran dauden familiek beren eskubideak erabiltzeko edozein muga saihestu beharko litzateke, araudian aurreikusita ez badago.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendioa luzatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari:

## GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du diru-sarrerak bermatzeko errentaren azkentzea berrikeria bada, ezin baita aldi baterako mugatu, barne-izaera hutseko tresnen bidez, araudian ezarritako adingabeak ardurapean dituen bizikidetz-unitate berezitat hartzea.

Gainera, nabarmendu du beharrezkoa dela gogoeta egitea araudiaren interpretazio honek gutxiengo kultural batzuentzako eta zaurgarritasun egoeran dauden beste familia batzuentzako dituen ondorioei buruz. Izan ere, familia horiek odol-ahaidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko loturak dituzte, eta zailtasun eta diskriminazio handiak jasaten dituzte etxebizitza bat eskuratzeko orduan.

